Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2566

EBAZPENA, 2010eko abenduaren 30ekoa, Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariarena, zeinaren bitartez EAEko nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko diru-laguntzen 2010eko deialdia ebazten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko diru-laguntzak jaso ahal izateko aurkeztu diren eskabideak aztertu dira. Laguntza hauek, azaroaren 16ko 302/2010 Dekretuaren bidez aurreikusi eta iragarri ziren.

Kontseiluaren ekainaren 21eko 1290/2005 eta Kontseiluaren irailaren 20ko 1698/2005 (EE) Europako Erregelamendu komunitarioek beste zenbaiten artean ezartzen dituzte LGENF funtsak eta landagarapen iraunkorra lortzeko laguntza komunitarioen esparrua. Laguntza horien artean daude azaroaren 16ko 302/2010 Dekretuak nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko diru-laguntzak.

Aipatutako erregelamendu komunitarioen arabera, LGENF funts komunitarioari dagokio finantzaketa komunitarioa.

Urriaren 3ko 194/2006 Dekretuarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileari dagokio LGENF funts komunitarioaren kontura finantzaturiko gastuak ordaintzea, erakunde horrek bakarrik baitauka horretarako eskumena.

Balorazio-batzordeak proposamena egin du eta, proposamen hori egiteko, kontuan hartu ditu nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko 2010eko azaroaren 16ko 302/2010 Dekretuaren 13. artikuluak ezarri zituen balorazioa eta hautaketa egiteko irizpide objektiboak.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako I. eranskineko zerrendan azaltzen diren eskatzaileei diru-laguntza ematea, 2010eko azaroaren 16ko 302/2010 Dekretuan jasotako nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egi-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

2566

RESOLUCIÓN de 30 de diciembre de 2010, de la Directora de Innovación e Industrias Alimentarias, por la que se resuelve la convocatoria de ayudas a la inversión en infraestructuras ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola de la CAPV, correspondiente al ejercicio 2010.

Vistas las solicitudes de ayuda presentadas para acogerse a las ayudas a la inversión en infraestructuras ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola de la Comunidad Autónoma del País Vasco, previstas y convocadas mediante el Decreto 302/2010, de 16 de noviembre.

Considerando que, entre otras cuestiones, los Reglamentos Comunitarios (CE) n.º 1290/2005, del Consejo, de 21 de junio, y 1698/2005, del Consejo, de 20 de septiembre, establecen el fondo FEADER y las ayudas comunitarias a favor de un desarrollo rural, entre las que se encuentran las ayudas a las infraestructuras ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola establecidas en el Decreto 302/2010, de 16 de noviembre.

Considerando que conforme a los anteriormente citados Reglamentos comunitarios corresponde al Fondo Comunitario FEADER la financiación comunitaria.

Considerando que, de conformidad con el Decreto 194/2006, de 3 de octubre, corresponde al Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como único organismo autorizado, el pago de las ayudas financiadas con cargo al fondo comunitario FEADER.

Considerando que la Comisión de Valoración ha emitido una propuesta para cuya elaboración ha tenido en cuenta los criterios de valoración establecidos en el artículo 13 del Decreto 302/2010, de 16 de noviembre, de ayudas a la inversión en infraestructuras ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola.

Teniendo en cuenta lo anteriormente expuesto

RESUELVO:

Primero.– Conceder a los solicitantes que se relacionan en el anexo I de la presente Resolución ayudas a las infraestructuras ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola según lo recogido en Decreto 302/2010, de 16 de noviembre. Se especifi-

teko. Aipatutako eranskinean zehaztuta daude diru-laguntza jaso dezaketen inbertsio edo gastuen zenbatekoak eta zuzeneko laguntza moduan emandako laguntzen zenbatekoak. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatuko den diru-laguntza 93.985,26 eurokoa da.

Bigarrena.– Ebazpen honetako II. eranskineko zerrendan azaltzen diren eskatzaileei diru-laguntza jasotzeko eskubidea aintzatestea, 2010eko azaroaren 16ko 302/2010 Dekretuan jasotako nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko. Aipatutako eranskinean zehaztuta daude diru-laguntza jaso dezaketen inbertsioen zenbatekoak eta zuzeneko laguntza moduan emandako laguntzen zenbatekoak. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuko den diru-laguntza 52.866,53 eurokoa da.

Inbertsioak eta gastuak burutzeko azken eguna 2011ko abenduaren 31 izango da.

Hirugarrena.– Laguntzen ordainketa, nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko 2010eko azaroaren 16ko 302/2010 Dekretuaren 15. artikuluak aurreikusitakoaren arabera egingo da.

Laguntza hauen ordainketa Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen bitartez burutuko da, urriaren 3ko 194/2006 Dekretua aplikatuz.

Laugarrena.– Ebazpen honetako III. eranskineko zerrendan azaltzen diren eskatzaileei diru-laguntzarik ez ematea, azaroaren 16ko 302/2010 Dekretuan jasotako nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa aurkez dakioke Arrantza eta Elikagaien Industriako sailburuordeari, hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluan zehaztutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 30a.

Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendaria,
AMAIA BARRENA TELLERIA.

can en el citado anexo, el importe de la inversión o gasto subvencionable y la cantidad subvencionada como ayuda directa, siendo que la cuantía total financiada con cargo a los Presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi asciende a 93.985,26 euros.

Segundo.– Reconocer a los solicitantes que se relacionan en el anexo II de la presente Resolución el derecho a la subvención para ayudas a las infraestructuras ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola según lo recogido en el Decreto 302/2010, de 16 de noviembre. Se especifican en el citado anexo, el importe del gasto elegible y la cantidad subvencionada como ayuda directa, siendo que la cuantía total financiada con cargo al Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) asciende a 52.866,53 euros.

El plazo máximo de ejecución de las inversiones y gastos será el 31 de diciembre de 2011.

Tercero.– El pago de las ayudas se realizará según lo dispuesto en el artículo 15 del Decreto 302/2010, de 16 de noviembre, de ayudas a las infraestructuras ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola.

El pago de estas ayudas se llevará a cabo a través del Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco en aplicación del Decreto 194/2006, de 3 de octubre.

Cuarto.– Denegar a los solicitantes que se relacionan en el anexo III de la presente Resolución las ayudas a las infraestructuras ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola las ayudas convocadas mediante el Decreto 302/2010, de 16 de noviembre.

Quinto.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Pesca e Industrias Alimentarias, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de diciembre de 2010.

La Directora de Innovación e Industrias Alimentarias,
AMAIA BARRENA TELLERIA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN KONTURA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK
SUBVENCIONES CONCEDIDAS CON CARGO A LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

	Sarrera zk. *N.º entrada*	Baltzuaren izena *Razón social*	IFK/NAN *CIF/DNI*	Proiektua *Proyecto*	Diruz lagun daitezkeen gastuak *Gastos subvencionables*	Diru-laguntza *Subvención*
1	1088524	Biotermiak Zeberio 2009, S.L.	B-95 589 503	Garitano anaien negutegian, Mungian, biomasa-galdararen instalakuntza *Instalación de caldera de biomasa en invernadero de hermanos Garitano en Mungia*	183.564,74 €	93.985,26 €

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

LGEN FUNTS KOMUNITARIOAREN KONTURA AINTZATETSITAKO LAGUNTZAK
SUBVENCIONES RECONOCIDAS CON CARGO AL FONDO COMUNITARIO FEADER

	Sarrera zk. *N.º entrada*	Baltzuaren izena *Razón social*	IFK/NAN *CIF/DNI*	Proiektua *Proyecto*	Diruz lagun daitezkeen gastuak *Gastos subvencionables*	Diru-laguntza *Subvención*
1	1088524	Biotermiak Zeberio 2009, S.L.	B-95 589 503	Garitano anaien negutegian, Mungian, biomasa-galdararen instalakuntza *Instalación de caldera de biomasa en invernadero de hermanos Garitano en Mungia*	183.564,74 €	52.866,53 €

III. ERANSKINA / *ANEXO III*

UKATUTAKO ESKABIDEAK
SOLICITUDES DENEGADAS

Sarrera zk. *N.º entrada*	Baltzuaren izena *Razón social*	Ukoaren arrazoia *Motivo de denegación*
1111547	ADR Behemendi	Ez du 8.1 artikulua betetzen *No cumple el artículo 8.1.*
1119897	Aramaioko Udala/Ayuntamiento de Aramaio	Ez du 4.1.b) artikulua betetzen *No cumple el artículo 4.2.b)*